

Arabaren egiteko diren omenaldi eguna izango dira beste batzar bereziak. Gainerakoan, ohi den bezala, Donostian egingo dira batzar arruntak.

Beraz, proposatu eta onhartu den egutegia honako hau da: Urtarrilaren 2an Donostia, arrunta (gaurko hau hain zuzen); Otsailaren 6an Donostian, arrunta; Martxoaren 6an Zaldibarren (Bizkaia), irekia; Martxoaren 26an Donostian, arrunta; Apirilaren 30an Gasteizen, irekia; Maiatzaren 28an Donostian, arrunta; Ekainaren 25ean Donostian, arrunta; Uztailaren 21ean (?), irekia; Abuztuaren 22an Zuberoan, irekia; Irailaren 24an Donostian, arrunta; Urriaren 29an Donostian, arrunta; Azaroaren 26an Donostian, arrunta; eta Abenduaren 29an Bilbon, arrunta.

h) MATEMATIKA EUSKAL HIZTEGIAREN AZTERKETA

Mikel Zalbide, Elhuyar taldeko jaunak matematikazko euskal hiztegiaren azterketazko txostena aurkeztu du, gaztelaniaz, frantsesez eta euskaraz, mailaz maila jarria, orain arte euskara idatzian erabili diren hitzen bilduma. Lanaren helburua, azterketa metodoa, hitz zerrendak, azterketak agertzen duen zenbait problema, eta amaiera iritzia adiarazten ditu. Liburu mardul batean ordenatzaileak eman bezala jasotzen dira hitzak, alboan nondik jasoak diren adiarazten duen giltza jarriaz. Lan baliosa da irakaskintza testuen lagungarri.

Liburua, Elhuyar taldeak Euskaltzaindiari eskaintzen dio, eta eskerak emanen zaizkie.

i) BAKOITZAK DAKARRENETIK

Burugoak aditzera eman du J. Zaitegi jaunak ebakuntza izan duela eta batzarkideak laster gure artean ikusteko gogoia agertu dute.

I. Beobide laguntzailearen anaiaren heriotzaren berri eman da eta gure doluminak agertzea erabaki da.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martin

1976 - II - 6

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1976ko otsailaren 6an, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, A. Arrue, E. Erkiaga, A. Irigoyen, P. Lafitte euskaltzain jaunak; J. M. Aranalde, X. Aranburu, M. Atxaga, S. Garmendia, X. Kintana, E. Knörr, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, J. A. Retolaza, A. Zatarain eta J. J. Zearreta laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dela.

Dassance, Davant, Diharce, Larre eta Larzabal jaunek jakinarazten dute ezin etorri direla.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Abenduko eta urtarrileko batzar agiriak onhartu dira.

Euskaltzainburuak, Jose Etxeandia laguntzailearen hil berria eman du.

a) HAR-EMANAK

Donostiako udaletxeak aditzera ematen digu, urtarrilaren 28ko batzारेan Euskaltzaindiari 200.000,— pezeta ematea erabaki zutela, aurtengo diru laguntzaz. Gure eskerrak agertzea erabaki da.

J. A. Arana Martija jaunak aditzera ematen digu, 1973an Euskaltzaindiak Arrasateko batzar ondorean Gernikako udaletxeari kaleren bati Sebero Altube izena jartzeko eskaria egitea erabaki zuela, eta eskari honen ondorenez urtarrilean Gernikako plaza bati "Auditorio Severo Altube" izena jarri zaiola. Gernikako udaletxeari eskerrak ematea erabakitzten da.

Jesus Uribe-Etxebarria irakasle jaunak Bilboko Escuela Oficial de Nautica delakoari euskararen irakaskintza jartzeko egin dion eskariaren berri eman digu.

Baionako I.U.T. (Institut Universitaire du Technologie) delakoak ere euskarazko klaseak jarri ditu, astean hiru oren.

Bilboko Escuela de Idiomas-en frantsesa edo inglesa bezala jartzen da euskararen irakaskintza.

Eskoletan bilinguismoa eraman nahi duten eragatik eta honen inguruan joko txarra egiten ari diren Euskaltzaindiko zenbait laguntzailegatik, Kintana jaunak agirian bere protesta agertzea eskatzen du.

Liburuzainak urtarrilean hartu diren liburuen berri eman du. Gero eta Jakin argitaldaria beren sailletakoak bidali dizkigute, eta hauez gainera Haritschelhar, Diharce (Iratzeder), eta Kintana jaunak zenbait liburu; eta N. Alzolak eta X. Gereñok separata eta aldizkari. Eskerrikasko guztiei.

E. Erkiaga diruzain jaunak kontuen berri eman du, Uztailetik Abendurartekoa. Era orokarrez, denera: zegoena, 240.999,67 pezeta; gehitua, 847.183, 41; urritua, 901.543,51; *dagoena*, 186.639,57 *pezeta*. Banku eta kutxetan dirua nola dagoen banaturik, eta sarrerren eta urritzeen zertzeladarik aipagarrien berriak.

b) GOIZEKO BILKURAREN BERRI

Euskaltzainburuak eman du bilkura honen berri. Donostiako ordezkartzaren buru A. Arrue jauna izendatzen da. Idazkaririk oraindik ezta aurkitu. Batzordeko Irigarai, Santamaria, Zumalabe eta S. Garmendia.

E.G.B.-ko irakaskintzarako matematikazko azpibatzordea: Jesus M^a Goñi, Karlos Santamaria, Mikel Zalbide eta Jose Migel Zumalabe jaunak; kontseilariak, J. L. Alvarez Enparantza, J. L. Davant eta abar.

Bitor Garitaonandia, "Argia"ren sortzaile eta Euskaltzaindiaren urgazle zenaren omenezko biltzar irekia eginen da bere jaioterri zen Zaldibarren, martxoaren 6an, larunbatez. Bertako alkate den Lasun, Arrue

apaiza, Zatarain eta Beobide jaunen hitzaldi laburrak izango dira B. Gari-taonandia zenaren bizitza eta laneri buruz.

Donostiako herri irratia martxoaren 27an hogetalau ordu euskaraz eman nahi du eta gure batzarra irratiz ematea eskatu du eta baiezkoa eman zaio.

Euskaltzaindiko etxea (Bilboko Ribera 6koa) "ruina" deklaratu nahi-dute, eta zerbait pentsatu beharra agertu da.

Gipuzkoako Ikastolen Elkarte-Batzak bilinguismoari buruzko Symposium bat eratu nahi du aurtengo udarako, ongi irtetzen bada bi urterik behin egitekotan. Symposium honek bi parte aztertu nahi ditu, bi hizkuntzeri buruzko alderdi teknikoak eta irakaskintzan eraman behar diren bideak. Honetarako batzorde tekniko bat izendatu dute. Lankide Aurrezkiaren diru laguntzaz eramango dute eta Euskaltzaindiaren babesa eskatu dute eta baiezkoa ematen zaie. Gainera, lehen parteko hizkuntzaren tekniko alderdia Euskaltzaindiak bere gain hartzea eskatzen dutenez, Siadeco-rekin gertzatzen ari garen sozio-linguistikazko lanarekin balia gindezke. Gure burugoaren eta irakaskintza mailaren har-emanetan jar-tzeko Lizundia, San Martin, Aranalde, Letamendia, Altuna, S. Garmendia, Atxaga eta Laspiurren izenak eman dira.

A. Irigoyen jauna pertsona izenak euskaraz ere onhartzearen eskari-az mintzatu da, baina gaurko gaietatik irtetzen denez urrengo batean trata-tzeko uzten da.

d) OINATIKO ARRAZOLA ETXEKO EZKRIBUETAZ

Gerardo Elortzaren txostena, Oinatiko Arrazola etxeko eskribuetaz, euskaltzainburuak irakurria. Oinatiko euskaraz idatzitako bi liburu hoi-en xehetasun guziak ematen ditu, neurriak eta erabiltzen dituen gaiak adia-raziaz. XIX. mendearen hastapenetakotzat jotzen dira, eta garai hartatik gaur egunerako hizkera aldaketen berri ere ematen du.

e) COROMINAS'EN IRITZI BATI BURUZ

A. Zatarain jaunaren txostena, *-ola* atzizkiaren esan nahiaz, Corominas-en iritzia eta zenbait hiztegitan hontaz dakarrena.

f) EUSKALTZAINDIAREN ARTXIBURAKO ERRETRATUAK ETA MANETOFONO-ZINTAK

Nikolas Altzola jaunaren txostena, J. L. Lizundiak irakurria. Euskaltzaindiko bileretan eta honen inguruan jasotako argazki eta magnetofoi-z hartutako gaiez artxibo berezi bat antolatzea eskatzen du, hau bideratze-ko iritziak emanez.

g) BAKOITZAK DAKARRENETIK

Idazkaria, Zatarain jaunak "El Diario Vasco"n hain desegoki idatzi duen artikulua batean Euskaltzaindiari dagokion erantzuna eskatzen ziola, eta 1968ko urriaren 5eko agirian "begi onez ikustea" eta geroago 1970e-

ko uztailaren 29koan "kontseilu"tzat hartu zenari buruz, mintzatu da. Idazkariak, bere ustez, 1970eko otsailaren 28ko agirian argi gelditu zela adierazten du.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martín

1976 - III - 6

Zaldibarren (Bizkaia', Herriko etxean, 1976ko martxoaren 6an, goizeko hamaika t'erdietan, bildu dira: L. Villasante buru, A. Irigaray, P. Lafitte, E. Larre eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; L. Akesolo, N. Alzola, J. M^a. Aranalde, X. Aranburu, M. A. Astiz, M. Atxaga, I. Beobide, J. Berrojalbiz, J. A. Etxebarría, B. Gandiaga, J. Garmendia Kortadi, J. M^a. Iriondo, E. Knörr, J. L. Lizundia, S. Onaindia, J. M. Torrealdai, P. Uribarren, I. de Urquijo, I. Zaitegi euskaltzain laguntzaile jaunak, J. San Martín idazkari dela.

Arrue, Dassance, Davant, Diharce, Haritschelhar, Larzabal eta Olasgerre (Intza'r Damaso A.) jaunek jakinarezten dute beren ezin etorria.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Euskaltzainburuak aditzera eman du, Zaldibarren biltzen garelá, alde zurrerik adiarazía zegoenez, Bitor Garitaonandia euskal idazle eta Euskaltzaindiko laguntzaile izan zenaren jaiotzako ehungarren urteburua betetzeko, baina bitartean Euskaltzaindiaren legezko nortasunarekin jabetzea izan dugunez, honi buruzko kontu ematea besterik ez dela oraingo Euskaltzaindiko bilera labur hau, ondorean Garitaonandiaren omezeko bilera irekiarekin jarraitzeko. Euskaltzainburuak txosten bat irakurri du, nortasunaren beharra eta hau lortzeko jarraitu diren bideak agertzen dituená. 1970. urteko urtarrileko batzarrean erabaki zela nortasuna lortzearen ardura Euskaltzaindiko lege-gizonen esku uztea eta urte bereko martxoko batzarrean Arrue jaunak eman zituela lehen urratsak nondik nora behar zutenaren argitasunaz, lehenbizi gure Arautegia berrituaz. Eta geroztik eten gabe jarraitu dela gai hau. 1971ko abenduan eta 1972ko urtarrileko batzarretan aztertu eta onartu zela Arautegia, eta 1972 apirilekoan bironartu. Bereala "Educación y Ciencia"ko Ministerioan presentatua izan zena. Eta geroztik Oreja eta Arrue jaunek, batez ere, bultzatu dutela eginkizun hau. Otsailaren 9rako ministro jaunaren deia izan genuela eta Madrid-era joan zela honako batzorde hau: Euskaltzainburua, idazkaria, idazkariordezkoa, Arrue eta Satrustegi jaunek. Ministruak orduan jarri zigan baldintza bakarra, aurretik "Real" eramatea, Espainiako Akademia guziak beren izena hala dutelako, eta ondoko egunetan bere idazkari teknikoak deituak izango ginela zenbait puntu begiratzeko. Otsailaren 16tik 18ra, Ministerioko idazkari teknikoarekin zenbait puntu aztertzerá, Euskaltzainburua, idazkaria eta idazkariordezkoa joan zirela. Arautegiaren sarrera egiten lagundu eta Arautegiaren formazko gauza batzuk ikutu, hori izan zela egun haietako eginkizuna, eta Gobernuak Barcelonan otsailaren 20an izan duen Ministro Kontsejuak onartu duela Euskaltzaindiaren nortasuna, Real Academia de la Lengua Vasca. "Euskaltzaindia" izenez. Ondorean onartze honek ematen digun eskubidea eta